

BIZITZAZ

ARGAZKI LEHIAKETA.

Zipotza elkarteak antolatutako bostgarren argazki lehiaketan lehenengo saria irabazi duen argazkia: "antzina dirudi, oraina da" izenarekin, egilea Iker Oñatibia Salvador.



SAGAR-UZTA FESTA.

Sagar-uzta festan jendéz gainezka zegoen plazan lehenengo muztioa dastatzeko aukera izan genuen. Txotx denboraldiaren irikieran aldiz Ainhoa Arteta izan genuen sagardo berria atera eta edaten.

AUTORIK GABEKO EGUNA AGENDA 21

Haurrak ikastolara oinez joateko garrantzia landu da ekimen honekin. Herrian zehar hainbat kartel ipini dira, bertatik oinez zenbat denbora behar den ikastolara joateko zehaztuz. Bidean sortzen diren arazoak eta topatzen diren hobekuntzak azpimarratu zituzten "kale seguruak haurrentzat" leloaren inguruan.

